

Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak

Herritarrek (pertsona fisikoak eta juridikoak) kalte pertsonal nahiz materialengatik aurkeztutako erreklamazioak izapidetzeko prozedura.

Objektua

Prozedura honen objektua da partikularrei kalte-ordaina ematea urriaren 1eko 40/2015 Legeko 32. artikuluari jarraikiz, sektore publikoko erregimen juridikokoa, ondasun nahiz eskubideetan jasandako kalteak direla eta, baldin eta kalte hori zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorio bada. Salbuespena izango dira ezinbesteko kasuak edo partikularrek legez jasan behar dituzten kalteak.

Araudia

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena.

14/2000 Legearen 65. artikulua, abenduaren 29koaren, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriei buruzkoarena.

Hasteko era

Administrazioaren kabuz edo interesdunaren erreklamazioz.

Aurkezteko epea

Erreklamazioa egiteko eskubidearen preskripzioa urtebetekoa izango da, hain zuzen, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik urtebetera. Pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da kontaktzen epea.

Prozedura ebazten duen organoa

Administrazio Kontseilua eta, hark eskuordetuta, ENAIRearen Idazkaritza Nagusia.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea

Sei hilabete.

Epean ebazpena ez egotearen ondorioak

Ezeztaileak.

Administrazio-isiltasuna arautzen duen araua

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena.

Bidearen amaiera

Prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du.

Baliabideak

Ematen den ebazpenari berraztertze-errekurtso bat jar diezaiokezu aukeran, edo, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtso bat.

Ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordaina eskatzeko baldintzak

Espedientea bizkorrago izapidetuko da eskaera behar bezala aurkezten bada. Hori dela eta, garrantzitsua da eskaera ondo betetzea, 39/2015 Legearen 66. artikulua araber, honako hauek izan behar dituen:

- Interesdunaren izen-abizenak eta, hala dagokionean, haren ordezkariarenak. Ordezkapen hori egiaztatu beharko du urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluari jarraikiz.
- Kanal elektronikoaren identifikazioa edo, bestela, jakinarazpena jasotzeko toki fisikoa. Gainera, interesdunek haien helbide elektronikoa edota telefono mugikorraren zenbakia eman dezakete, administrazio publikoek bidalketaren berri eman edo jakinarazpena erabilgarri dagoela jakinaraz diezaieten.
- Eskaera argi laburbiltzen duten gertakari, arrazoi eta eskaerak.
- Lekua eta data.
- Eskatzailearen sinadura edo bere borondatearen benetakotasuna egiaztatzea edozein kanal erabiliz.
- Eskaera zuzentzen zaion organoa, zentroa edo administrazio-unitatea eta dagokion identifikazio-kodea.

Aurrekoaz gain, 67. artikulua araber, honako hauek eduki beharko ditu:

- Kalteak.
- Lesioen eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren arteko kausazko harremana.
- Ondare-erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa.
- Kaltea benetan gertatu zen unea.
- Beharrezkoak diren alegazio, dokumentu eta informazioekin batera joango da, baita froga proposatzeko idazkiarekin batera ere.

Eskaeraren aurkezpena

Behin eskaera beteta, beharrezko dokumentazioarekin batera, ENAIRearen Erregistro Orokorrean aurkez daiteke (Avda. de Aragón 330 - Edificio B - 28022. Madrid), eta 39/2015 Legean, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkidearena, aurreikusten den edozein tokitan:

- Eskabidea zuzendu zaion administrazio-organoko erregistroak.
 - Estatuko administrazio orokorra
 - Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
 - Tokiko administrazioa osatzen duten erakundeak.
 - Erakundeen sektore publikoa.

- Edozein administrazio-organotako erregistroa, dela estatuko administrazio orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administraziokoa, dela, honi buruzko hitzarmena izenpetuz gero, tokiko administrazioko erakunderen batekoa.
- Correos-eko bulegoetan, arau bidez ezarritako moduan.
- Atzerrian Espainiak dituen ordezkaritza diplomatiko nahiz bulego kontsularretan.
- Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste edozein lekutan

Datuen babesa

Tratamenduaren arduraduna: ENAIRE.

Helburua: Aurkeztutako aukerako berraztertze-errekurtsoa izapidetu eta kudeatzea

Legitimazioa: Datuen tratamendua administrazio-prozeduraren araudi erregulatzailan oinarritzen da.

Hartzaileak: Datuak ez zaizkie lagako hirugarrenei, legezko betebeharren kasuan izan ezik.

Eskubideak: Datuak kontsultatzea, zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk erabiltzea, ENAIREren Datuak Babesteko Unitate Zentralean (UCPD) (Avda. de Aragón 330 - Edificio B - 28022 MADRID) edo egoitza elektronikoaren bidez (sede.enaire.gob.es).

Informazio osagarria: Informazio osagarria kontsulta dezakezu hemen: I. eranskina – Informazio osagarria – Datuen babesa.

I. eranskina – Informazio osagarria – Datuen babesa.

Tratamenduaren arduraduna

Nortasuna: ENAIRE – IFZ: Q2822001J

Posta-helbidea: Avda. de Aragón, 330 - Edificio B - 28022 Madrid

Telefona: 913 21 02 11

Helbide elektronikoa: informacion@enaire.es

Datuak babesteko ordezkaria (DBO): ucpd@enaire.es

Tratamenduaren helburua

Helburua: Inprimaki honen bidez bildutako datu pertsonalak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu eta kudeatzeko tratatuko dira. Kontserbazioaren epeak: Legeria aplikagarrian aurreikusitakoak erantzukizunen preskripzioari dagokionez.

Legitimazioa

Datuen tratamendua DBEOaren 6.1. c) artikuluan oinarritzen da: administrazio-prozeduraren araudi erregulatzailerak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena).

Hartzaileak

Datuak ez zaizkie lagako hirugarrenei, legezko betebeharren kasuan izan ezik. Ez dago aurreikusita beste herrialde batzuei edo nazioarteko erakundeei transferentziak egitea.

Eskubideak

Ukitutako pertsonak hurrengorako eskubidea dute:

- Baieztapena jasotzekoa, jakin nahi badute ea ENAIREk haien datu pertsonalak tratatzen dituen.
- Haien datu pertsonaletan sartzekoa, baita datu okerrak zuzentzeko eskatzekoa ere, edo haiek ezabatzea, beste arrazoi batzuen artean, datuak ez direnean beharrezkoak jaso zirenean zuten helburuak lortzeko.
- Egoera jakin batzuetan hau eska dezakete:
 - Datuen tratamendua mugatzea; kasu horretan, ENAIREk datuok mantenduko ditu soilik erreklamazioak egiteko edo defendatzeko.
 - Datuen tratamenduari aurka egitea eta, hala izanez gero, datuak tratatzeari utziko dio ENAIREK, premia larrietarako edo aurkez litezkeen erreklamazioak egin edo haien aurrean defendatzeko izan ezik. Horrek barnean hartzen du datuak banako erabaki automatizatuetarako tratatzea ere.

Eskubideak ENAIREn Datuak Babesteko Unitate Zentralaren aurrean erabili ahal izango dira (Avda. de Aragón 330 Edificio B - 28022 MADRID, Madrid) edo administrazio elektronikoaren bitartez (sede.enaire.gob.es). Zure eskubideak erabiltzean ez baduzu jaso beharrezko arreta, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean – Helbidea: C/Jorge Juan, 6 - 28001 MADRID (Madrid) – Egoitza elektronikoa: sedeagpd.gob.es.